



## PRENTSARAKO OHARRA

18/02/21

### **Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deusie Aldundiari, bere esku dagozan eguneko zentroak asteburuetan be zabaldu daizan**

Gaur goizean Gernikan egin dan Ohiko Osokoan Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deusie Aldundiari, eguneko zentroak asteburuetan be zabaltzeko hartu beharreko neurriak hartu daizan. Holan, “zerbitzu horren erabiltzaile izan daitekezan 15.000 pertsona baino gehiagori” bertara joateko aukerea errazten jake, ekimenean zehazten danez. Erabagia, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eskea eta Talde Mistoaren aldeko eretxia jaso dauen Talde Popularraren mozinotik sortu da.

Eduardo Andrés Talde Popularreko batzarkideak bere esku-hartzean azpimarratu dauenez, beharrezkoa da 2016an programa pilotu moduan eskintzen hasi zan esperientzia hori “Bizkaia osoan errealdade bihurtzea”. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek zuzenketa-eske bateratua aurkeztu dabe mozinoaren aurrean, foru erakundea daborduko arlo horretan hainbat esfortzu ari dala egiten zehaztuz. Aldaketak, proposamena aurkeztu dauen taldearen eta Talde Mistoko ordezkariaren aldeko eretxia jaso dau. Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeak, barriz, abstenidu egin dira, gaur egun, ekimenak ez dituala mendekotasuna daukien pertsonen eskubideak bermatzen adierazoz.

#### UDAL JABARI PUBLIKOA ERABILEAGAITIKO TASEA

Beste alde batetik, Batzar Nagusiek ez dabe onartu EH Bilduk aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, Bizkaiko Foru Aldundiak eta lurraldeko udalek, leku publikoetan dagozan sareen erabilerea egiten daben energia, ur, telekomunikazio eta bestelako hornidurea emoten daben enpresen fakturazinoaren gaineko informazio zehatza euki daien.

EH Bilduk adierazo dauenez, holango enpresek iruzur posiblea egiten dabe, ezinezkoa dalako udalerrri bakoitzean daukien fakturazio gordinaren datuak ziurtatzea, eta horrek, aldi berean, toki korporazinoen finantzaketea murriztea dakar. Talde Mistoko ordezkaria eta Batzarretako Podemos Bizkaia taldea ekimenaren alde agertu dira, enpresa handien pribilegioakaz amaitzen eta saiheste fiskala baztertzen lagunduko leukela adierazoz. Talde Popularrak bere abstentzinoaren azalpena emon dau, “proposamenaren funtsagaz bat etorrita be, zalantza handiak daukaguzalako proponidutako prozeduraren inguruan”.

Foru Gobernu eusten daben Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen aldetik, biek esan dabe proposamenaren kontra dagozala beste bide batzuk aztertu behar diralako, Bizkaiko Foru Aldundiak ez daukalako enpresa horreek udalerrri bakoitzean daukien fakturazinoaren gaineko banakako daturik, eta arazo horren konponbidea, seguruenez, desbardina izango dalako udalerrri bakoitzaren tamainua kontuan izanda. Udal jabari publikoa erabilteagaitiko tasa baten gaia lantzeko beharrak batzarretako talde guztien arteko adostasun zabala eragin dauen arren, talde bietako ordezkariak argi itzi gura izan

dabe “ez dala egokia *barra libre*a eta iruzur zabala dagola esaten dauen idea zabaltzea, baina bai danok konpondu gura dogun arazo konplexua eta gaitza dagola jakinarazotea”.

#### AURREKONTUAKAZ ERLAZIONAUTAKO GAIAK

Osokoak, Aurrekontuakaz erlazionautako gai bi be landu ditu. Alde batetik, behin betiko onetsita geratu da 2015eko ekitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, Kontuen Euskal Epaitegiak aztertu eta gero. Gai hori aurretik be landu zan Batzordean. Beste alde batetik, ez da onetsi, lurralde historikoko gastuaren aurreikuspenean partida batzuk zehazteko orduan gardentasun eta zehaztasun gehiago egon behar dala eta, Foru Arau Orokorren aurrean aldaketak aurkeztu dituan Podemos Bizkaia taldearen Arauz Besteko Proposamena. Ekimenak Talde Mistoaren eta EH Bilduren aldeko botoak jaso ditu, Talde Popularra abstenidu egin da eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe.

#### GIZARTE EKINTZA SAILEKO BEHARGINEN ARRISKU PSIKOSOZIALAK

Podemos Bizkaia taldearen beste ekimena, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko beharginen arrisku psiko-sozialen inguruko mozinoan zentrau da, sindikatuakaz koordinata txosten bat egiteko eskatuz. Aurreko kasuan gertatu dan moduan, Podemosen ekimenak Talde Mistoaren eta EH Bilduren aldeko botoak jaso ditu, baina mozinoa ez da onartu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek eta Talde Popularrak kontrako botoa emon dabelako, txosten hori, Bizkaiko Foru Aldundiak daborduko martxan jarri dauen egitekoa dala, sindikatuak egiteko horretan parte hartzen dagozala eta, hori dala eta, Podemos Bizkaiaren proposamena “euki barik” geratzen dala, esanez.

#### GAZTEDI PLANA

Eguneko gai zerrendeari bukaerea emoteko, EH Bilduk Gaztedi Bizkaia 2020 Planaren gaineko mozino bat aurkeztu dau. Eztabaidea, programa horretan parte hartu eben gazteei emondako beken inguruan zentrau da, prekariedadea eragiten ebela eta oso diru gitxi emoten ebela eta beka horreek arautzen dituen hitzarmenak hobetu behar dirala esanez. Podemos Bizkaia esandakoaren alde agertu da, eta esan dau beharrezkoa dala sindikatuak be parte hartzea, larkeriarik gertatu ez daiten. Podemos taldeko bozeroalearen esku-hartzeak Unai Rementeria Ahaldun Nagusiaren ahozko esku-hartze bakarra eragin dau, aitamengaitik. Ahaldun Nagusiak guzurtau egin dau, osokoan esan danez berak adierazpen jakin batzuk egin ebazanik eta Bizkaia BBK beken gaineko xehetasun batzuk zuzendu ditu.

Talde Misto, Talde Popularra, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak mozinoaren kontra agertu dira, euren botoen bitartez. Lehenengoak neurriaren eraginkortasunaren gaineko zalantzak agertu ditu, eta Talde Popularrak oso nahasia dala kritikau dau. Bozeroale sozialistak esan dauenez, EH Bilduren mozinoa udal autonomiari egindako eraso izango litzateke, talde horrek holango erasoak behin baino gehiagotan kritikau dituan arren. Euzko Abertzaleak taldeko batzarkideak, barriz, adierazo dau “Bilduk ez daukala umeen eta gazteen gaineko diskurtso bakarra, hainbat baino, eta alkarren artean kontrajarriak, batzuetan”.

21/02/18

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a habilitar los centros de día forales durante los fines de semana**

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana en el Pleno Ordinario celebrado en Gernika instar a la Diputación Foral a llevar a cabo medidas para habilitar la apertura de centros de día durante los fines de semana. De esta manera, se facilita su acceso a las “más de 15.000 personas potencialmente usuarias del mismo”, según se concreta en la iniciativa. Esta decisión parte de una moción del Grupo Popular que ha sido enmendada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos y apoyada por el Grupo Mixto.

El apoderado del Grupo Popular Eduardo Andrés ha resaltado durante su intervención la necesidad de que esta experiencia, que comenzó a ofertarse en 2016 como programa piloto, “pase a convertirse en realidad en toda Bizkaia”. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han enmendado conjuntamente la moción, matizando que el ente foral ya viene desarrollando esfuerzos en esta materia. La modificación ha contado con el respaldo del grupo proponente y del representante del Grupo Mixto. Por su parte, los grupos Podemos Bizkaia y EH Bildu se han abstenido, alegando que la iniciativa no garantiza hoy por hoy los derechos de las personas dependientes.

### **TASA POR UTILIZACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL**

Por otro lado, las Juntas Generales han rechazado una Proposición No de Norma, a iniciativa de EH Bildu, para que la Diputación Foral de Bizkaia y los ayuntamientos del territorio dispongan de información exacta sobre la facturación de empresas suministradoras de energía, agua, telecomunicaciones y otros servicios que dependen de la utilización de redes ubicadas en espacios públicos.

EH Bildu ha argumentado que este tipo de empresas incurren en un posible fraude fiscal al no ser posible certificar sus datos de facturación bruta en cada municipio, lo cual a su vez redundaría en una reducción de la financiación de las corporaciones locales. Tanto el representante del Grupo Mixto como el grupo juntero Podemos Bizkaia han apoyado la iniciativa, indicando que contribuiría a acabar con los privilegios de las grandes empresas y ayudaría a evitar la elusión fiscal. El portavoz del Grupo Popular ha explicado su abstención porque “aun compartiendo el fondo de la propuesta, tenemos serias dudas sobre el procedimiento propuesto”.

Por parte de los grupos que sustentan el Gobierno Foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, ambos han argumentado su rechazo a la propuesta en la necesidad de explorar otras vías, dado que la Diputación Foral de Bizkaia carece de datos individualizados sobre la facturación de estas empresas en cada municipio, y que la solución a este problema pasa probablemente por vías distintas en función del tamaño de los municipios. Aunque la necesidad de abordar la cuestión de una tasa por utilización del dominio público municipal ha concitado un amplio consenso entre todos los grupos junteros, los representantes de ambos grupos han querido dejar claro que “no es bueno

transmitir la idea de que existe *barra libre* y un fraude generalizado, pero sí en cambio de que hay un problema complejo y difícil que todos estamos interesados en solucionar”.

#### CUESTIONES PRESUPUESTARIAS

El Pleno ha abordado, asimismo, dos cuestiones relacionadas con Presupuestos. Por un lado ha quedado definitivamente aprobada la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2015, después de su revisión por el Tribunal Vasco de Cuentas, y que anteriormente ya se había debatido en Comisión. Por otro, se ha rechazado una Proposición de Norma Foral a iniciativa de Podemos Bizkaia para reformar la Norma Foral General de Presupuestos, aduciendo la necesidad de mayor concreción y transparencia a la hora de concretar ciertas partidas en la previsión de gasto del territorio histórico. La iniciativa ha contado con el apoyo de Grupo Mixto y de EH Bildu, la abstención del Grupo Popular y el rechazo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

#### RIESGOS PSICOSOCIALES DEL PERSONAL DE ACCIÓN SOCIAL

Una segunda iniciativa de Podemos Bizkaia se ha concretado en una moción en torno a los riesgos psicosociales del personal del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, que se concretaría en un informe a realizar en coordinación con los sindicatos. Como en el caso anterior, la iniciativa de Podemos ha contado con el apoyo del Grupo Mixto y EH Bildu. Sin embargo, la moción ha sido rechazada con los votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular, que han argumentado que dicho informe es una tarea que ya ha sido puesta en marcha por la Diputación Foral de Bizkaia, que los sindicatos participan en dicha tarea y que, en consecuencia, la propuesta de Podemos Bizkaia queda “vacía de contenido”.

#### PLAN GAZTEDI

Finalmente el orden del día se ha completado con una moción de EH Bildu en torno al Plan Gaztedi Bizkaia 2020. El debate se ha centrado en torno a las becas para las personas jóvenes que participaron en dicho programa, con acusaciones de precariedad y escasa remuneración y la necesidad de mejorar los convenios que las regulan. Podemos Bizkaia ha apoyado estos argumentos y la participación de los sindicatos como garantes para que no se produzcan abusos. La intervención de la portavoz de Podemos ha provocado, por alusiones, la única intervención oral del Diputado General, Unai Rementeria, que ha desmentido unas declaraciones a él atribuidas y ha corregido algunos extremos sobre las becas Bizkaia BBK.

Tanto Grupo Mixto como Grupo Popular, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han rechazado con sus votos la moción. El primero se ha mostrado escéptico con la efectividad de la medida, mientras que el Grupo Popular ha criticado lo confuso de la misma. El portavoz socialista ha argumentado que la moción de EH Bildu supondría un ataque a la autonomía municipal, que el propio grupo proponente ha criticado en ocasiones anteriores. Por su parte, el apoderado de Nacionalistas Vascos ha señalado que “Bildu tiene no uno, sino muchos discursos sobre infancia y juventud, a veces contradictorios entre sí”.